

IKASGAIA/ASIGNATURA: INTEGRAZIO PROIEKTUAK		
MODULUA/MÓDULO: Proiektuak eta Enpresa		
KODEA/CÓDIGO: PINT 02-2026/27	KURTSOA/CURSO: 2	KOKAPENA/UBICACIÓN: 3. seihiilekoa
IRAUPENA/DURACIÓN: 150 ordu	KREDITUAK/CRÉDITOS: 6 ECTS	MOTA/TIPO: Kanpoko praktikak
IRAKASLEA/PROFESOR: Jaione Gorospe		HIZKUNTZA/IDIOMA: Euskara / Gaztelania

HELBURUA – OBJETIVO: Ikasleak gai izan behar du integrazio proiektuen ataletan enpresa baten ezaugarriak eta espezialitatea islatzeko, kritikoki urruntzeko aukera eman behar du enpresaren funtzionamenduari eta/edo antolaketari dagokienez; enpresaren “egiten jakitean” sakontzeko gai izan behar du, eta bere gaitasunak hobeto menderatu, ikerketa baten bitartez. Ikasleak enpresaren alderdi teknikoak ikasiko ditu, eta hori ezinbestekoa izango da bere profil profesionala garatzeko. Horiek guztiak idatzizko komunikazioaren arauak errespetatuz, egiturari, ortografiari, gramatikari eta abarri dagokienez.

IKAS-PROZESUAREN EMAITZAK/ RESULTADOS DE APRENDIZAJE	ASOZIATUTAKO GAITASUNAK / COMPETENCIAS ASOCIADAS	EDUKIAK /CONTENIDOS
- Ortografiaren, gramatikaren eta sintaxiaren arauak errespetatzen dituzten dokumentuak sortzea eta idaztea - Idatzizko lanen egiturak erabiltzea eta txostenak eta artikuluko zientifiko-teknikoak planifikatzeko, idazteko eta berrikusteko gaitasuna garatzea - Ideiak eta kontzeptuak idatzizko txosten baten bidez adieraztea - Enpresa baten ezaugarriak eta espezialitatea identifikatzea eta dokumentu idatzi bat idaztea. - Ikasleak enpresaren “egiten jakitean” sakontzeko gai izatea, eta bere gaitasunak hobeto menderatu, ikerketa baten bitartez - Ikasleak enpresaren alderdi teknikoak ikastea, hori ezinbestekoa izango da bere profil profesionala garatzeko - Informazioa bilatzea, baliabideak zein diren jakitea, eta informazioa aztertzea eta sailkatzea - Kontzeptu teknikoak bereganatzea, zertarako balio duten jakitea eta nola erabiltzen diren aztertzea - Landutako informazioari buruzko txosten labur bat egitea	CB1, CB2, CB3, CB4, CB5, CG4, CG4.1, CG4.2, CG4.3, CG4.4, CG4.5, CG5, CG5.1, CG5.7, CT1, CT4, CM1, CM2, CM3, CM4, CM6	IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA - Testuak planifikatzea, idaztea eta berrikustea - Arrazoiketaren egituraketa - Hizkuntza-arietak: gramatika, sintaxia, hizkuntza idatzia zuzentzeko prozesuak - Idatzizko adierazpenaren berezitasunak - Txosten zientifiko-teknikoak idaztea - Txosten baten egitura KOKAPEN TXOSTENA - Edukia - Enpresaren aurkezpena - Organigrama eta sailen funtzioak - Jardueraren deskribapena - Produktuak eta zerbitzuak - Bezeroak eta hornitzaileak TXOSTEN TEKNIKOAK - Enpresako tutoreak eta ikasleak gaia zehaztu, eta Txosten Teknikoaren proposamen fitxa beteko dute, ondoren Eskolak proposamen hori baliozkotu beharko du. - Txosten Teknikoak honako hauek deskriba ditzake: - Enpresaren prozedura edo prozesu bat (proiektuak kudeatzeko prozedura, makina baten lan-prozesua, etab.) - Enpresako makina bat (laser bidezko ebaketa, paketatzeko

		makina, ebaketa osoko artezteko makina, etab.) - Enpresaren produktu edo teknologia bat (zilindro pneumatikoak, 5 ardatzeko mekanizazioa, etab.) - Ikasleak egindako ikerketa bat (solairuko banaketa, bezeroen gogobetetzea, etab.) - Txostenak honako hauek jasoko ditu: - Enpresaren aurkezpena era labur baten - Lanaren plangintza - Gaiaren garapena - Ondorioak - Txosten bat egingo da 15-30 orrialdekoa (30 orrialde gehienez)
--	--	---

BALIABIDE /METODOLOGI PEDAGOGIKOAK - MEDIOS/MÉTODOS PEDAGÓGICOS:

- Irakasleak azalpenak emateko eta/edo erakusteko saioak.
- Ikaskuntza teorikoak bereganatu, garatu eta zehaztu ahal izateko entregagai bat egitea.

BIBLIOGRAFIA - BIBLIOGRAFÍA:

- Kokapen txostenaren lan koaderno
- Txosten teknikoaren lan koaderno
- CRIT txostena (Txosten tekniko bat egitean jarraitu beharreko irizpideak)
- Dokumentazio gehigarria, egin beharreko lanen arabera

IRAKASKUNTZA MOTA -TIPO DE DOCENCIA

Irakaskuntza mota/Tipos de docencia:

M=Magistrala/Magistral; **S**=Mintegia/Seminario; **GA**=Gelako praktikak/Prácticas de Aula; **GL**=Laborategiko praktikak/Prácticas de P. Laboratorio; **GO**=Ordenagailuko praktikak/Prácticas de ordenador; **TA**=Tailerra/Taller; **TI**=Tailer industriaia/Taller Industrial;

Irakaskuntza mota / Tipo de docencia	M	S	GA	GL	GO	TA	TI
Ikasgelako eskola-orduak /Horas de docencia presencial							
Ikasgelaz kanpoko ikaslearen orduak / Horas de actividad no presencial del alumno							

EBALUAZIO METODO ETA IRIZPIDEAK – MÉTODOS Y CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHuren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu

zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere (adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean). Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

ETENGABEKO EBALUAZIOA - EVALUACIÓN CONTINUA ☐

AZKEN EBALUAZIOA - EVALUACIÓN FINAL ☐

Ebaluazio probetan erabili ahal izango diren baliabide eta bitartekoak / Medios y recursos que se podrán utilizar en las pruebas de evaluación

OHIKO DEIALDIA – CONVOCATORIA ORDINARIA

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

Idatzizko komunikazioa GAI izan dadin, ikasleak frogatuko du, **10etik gutxienez 5eko ebaluazioarekin**.

Azaldutakoa betetzen ez bada (hau da, EZ GAI bada), penalizazio bat aplikatuko da eta Integrazio Proiektuak osatzen duten bi proiektuen lan koadernoetan aurkeztuko da.

KOKAPEN TXOSTENA

Idatzizko dokumentua enpresako tutoreak eta tutore akademikoak ebaluatuko dute. Tutore akademikoaren iritzia gailentzen da. Txosten idatziak aukera ematen du aztertutako egoera ulertzeko eta ikasleak jarraitutako azterketa-prozesuaren jarraipena egiteko.

Honako hau ere ebaluatzen da:

- Txostenaren egitura
- Ortografia – aurkezpena

TXOSTEN TEKNIKOAK

Txostenari buruz eztabaidatzean, epaimahaikideek (enpresako tutoreak eta eskolako tutoreak) ebaluazio-eskala eta ebaluazio-irizpideak hartuko dituzte aintzat. Alderdi teknikoak ebaluatzearena enpresako tutorearen ardura izango da nagusiki.

Ez da ahozko aurkezpenik egingo.

Epaimahaiak gaiari galderak egin ahal izango ditu, zalantzak argitze aldera.

Edukia:

- Lanaren balorazio tekniko edo zientifikoa

Garapena:

- Plangintza
- Informazioa bilatzea
- Sintesi gaitasuna

Aurkezpen idatzia:

- Txostenaren egitura

- Emandako informazioaren argitasuna, zehaztasuna eta koherentzia
- Ortografia eta itxura

Argibideak/Aclaraciones:

Irakasgaiaren nota Kokapen Txostenaren eta Memoria Teknikoaren ebaluazioak kontuan hartuta egingo dira. Batez bestekoa kalkulatzeko eta ikasgaia gainditu ahal izateko, bi proiektuek gaindituta egon beharko dute.

Erakusketa-saioak gazteleraz izango dira. Kokapen Txostena eta Txosten Tekniko lanek ikasleak erabakitzen dute garapen-hizkuntza, beti ere enpresaren onarpena koordinatuta

EZOHIKO DEIALDIA - CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA

Ohiko deialdiko ebaluazio-irizpide berberei eutsiko zaie.